

<p>BASES REGULADORAS DEL PROCESO DE CONCESIÓN DE LA BECA DE INVESTIGACIÓN “FRANCISCA SETUAIN” POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR</p> <p>1.- Objeto El Ayuntamiento de Berriozar convoca la Beca de investigación “Francisca Setuain” para el estudio y la investigación de temas relacionados con la historia de Berriozar y la convivencia entre sus vecinos y vecinas.</p> <p>Esta beca tiene por objeto fomentar la investigación de los hechos históricos de Berriozar, así como los usos, costumbres y relaciones entre berriozartarras y con gentes de otros municipios cercanos, especialmente con las localidades que pertenecieron a la histórica Cendea de Ansoain.</p> <p>La beca tiene como objeto la publicación de un trabajo de investigación que analice la “Evolución histórica de Berriozar desde el año 1960 hasta la entrada del siglo XXI”. Para ello deberá recoger los hechos fundamentales que generaron la transformación de nuestro pueblo en esos años y su evolución de localidad rural con apenas 300 habitantes, hasta convertirse en uno de los diez municipios más poblados de Navarra.</p> <p>La investigación analizará dicha evolución y sus causas: el fenómeno de la inmigración entre los años 1965-1985; los acontecimientos históricos del período, vinculados a la economía y otros factores; la evolución de la cultura, usos y costumbres de sus gentes; transformación y problemática social, política y administrativa (paso de concejo a ayuntamiento); así como otras cuestiones que afecten directamente al tema enunciado. Precisamente el acotamiento del tema y los distintos enfoques del estudio del mismo serán los factores más valorados a la hora de evaluar las solicitudes presentadas.</p> <p>La beca pretende fomentar un trabajo de investigación que, posteriormente, se publicará con fines divulgativos en formato libro y otros soportes que el ayuntamiento tenga a bien considerar.</p>	<p>BERRIOZARKO UDALAK “FRANCISCA SETUAIN” IKERKETA BEKA EMATEKO PROZESUA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK</p> <p>1.- Xedea Berriozarko Udalak “Francisca Setuain” ikerketa bekarako deialdia egin du, Berriozarko historiarekin eta bertako bizilagunen arteko bizikidetzarekin zerikusia duten gaiak aztertu eta ikertzeko.</p> <p>Bekaren helburua da Berriozarko gertakari historikoen eta berriozartarren usadio eta ohituren ikerketa sustatzea, bai eta berriozartarrek beren artean eta inguruko beste udalerrri batzuetako jendearekin dituzten harremanak ere; bereziki, mendez mende Antsoain Zendeakoak izaniko herriekin.</p> <p>Bekaren xedea ikerlan bat argitaratzea da, “Berriozarko bilakaera historikoa 1960. urtetik XXI. mendearen hasiera arte” aztertzeko. Horretarako, urte haietan gure herriaren eraldakuntza eragin zuten funtsezko gertakariak jaso beharko ditu eta nola bilakatu zen landa giroko herri hura (300 bizilagunekoa, doi) Nafarroako hamar udalerririk jendetsuenetako bat izan arte.</p> <p>Ikerlanak bilakaera hori eta haren zergatiak aztertuko ditu: immigrazioaren fenomenoak 1965etik 1985era; garai hartako gertakari historikoak, hots, ekonomiari eta beste faktore batzuei lotutakoak; jendearen kultura, usadio eta ohituren bilakaera; eraldakuntza eta gizarte, politika eta administrazio arloko arazoak (kontzejua izatetik udala izatera pasatzea); eta aipaturiko gaiari zuzenean eragiten dioten beste kontu batzuk. Hain zuzen ere, gaia zehaztea eta gaiaren azterlanaren ikuspegiak faktorerik baloratuenak izanen dira aurkezten diren eskabideak ebaluatzeko orduan.</p> <p>Bekak ikerlan bat sustatu nahi du eta, gero, lana zabalkunderako argitaratuko da liburu moldean eta bestelako euskarrietan, udalak egokitzat jotzen duenarekin bat.</p>
---	---

<p>El plazo para la entrega de la redacción definitiva del estudio será de un año.</p> <p>2.- Requisitos de las personas solicitantes</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ser mayor de 18 años y estar en posesión de certificado de estudios básicos, sin que sea necesaria titulación académica superior a la actual ESO o equivalente. • Las solicitudes se podrán realizar de forma individual o colectiva. En este último caso, hasta un máximo de tres personas y todas ellas deberán cumplir el requisito establecido en el punto anterior; teniendo en cuenta que la dotación económica de la beca es fija. Cada persona podrá aparecer como solicitante en un solo proyecto. <p>3.- Dotación económica La dotación económica de la beca es de 3000 € con cargo a la partida 1 33400 4800000 – BECA INVESTIGACIÓN “FRANCISCA SETUAIN incluida en el Presupuesto General del Ayuntamiento del año 2022. La citada cuantía de la beca será independiente de que se opte a ella a título individual o colectivo.</p> <p>En cumplimiento de la normativa fiscal vigente se aplicará la retención correspondiente a la cantidad que constituye la dotación económica de la beca.</p> <p>4.- Presentación de solicitudes y documentación Las solicitudes se presentarán en el Registro electrónico del Ayuntamiento de Berriozarko o cualquier otro medio previsto en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.</p> <p>El plazo de presentación será de un mes contado a partir del día siguiente a la fecha de publicación del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Navarra.</p> <p>Solo se admitirá una única solicitud por cada aspirante.</p>	<p>Behin betiko lan idatzia aurkezteko epea urtebetekoa izanen da.</p> <p>2.- Eskatzaileen baldintzak</p> <ul style="list-style-type: none"> • 18 urtetik gorakoa izatea eta oinarrizko ikasketen ziurtagiria izatea; ez da beharrezkoa izatea egungo DBH edo baliokidea baino maila handiagoko titulu akademikorik. • Eskabideak banaka edo taldeka egiten ahalko dira. Talde eskabidea bada, gehienez hiru lagun izanen dira eta guztiek ere aurreko puntuan ezarria dagoen baldintza bete beharko dute, betiere kontuan hartuta bekaren zenbatekoa finkoa dela. Pertsona bakoitza proiektu bakar batean agertzen ahalko da eskatzaile gisa. <p>3.- Zuzkidura ekonomikoa Bekaren zuzkidura ekonomikoa 3.000 € da, 1 33400 4800000 – “FRANCISCA SETUAIN” IKERKETA BEKA partidaren kargura, Udaleko 2002. urteko Aurrekontu Orokorrean sartua. Bekaren zenbateko hori berbera izanen da hala banaka nola taldeka aurkezten direnendako.</p> <p>Indarrean den zerga araudiarekin bat, bekaren zenbatekoari dagokion atxikipena aplikatuko da.</p> <p>4.- Eskabideak eta agiriak aurkeztea Eskabideak Berriozarko Udalaren Erregistro Elektronikoan aurkeztuko dira edota Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein bitartekoren bidez.</p> <p>Lanak aurkezteko epea hilabetekoa izanen da, deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.</p> <p>Izangai bakoitzak gehienez eskabide bakarra aurkeztu ahal izanen du.</p>
--	---

<p>Las solicitudes se presentarán en formato normalizado y deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proyecto de trabajo: en el cual se recogerán el título, tema de investigación concreto, objetivos, metodología, cronograma, recursos y bibliografía que se usarán y los resultados previstos e interés de los mismos. El proyecto tendrá como máximo 10 hojas en tipología Time 12 pt. en el que expongan tanto el planteamiento del tema, como su enfoque principal, y los distintos apartados en los que lo irán desarrollando. Podrán presentar, asimismo, una bibliografía inicial, en la que se indiquen unas primeras fuentes de estudio, así como el enfoque del trabajo de campo, si lo hubiere. • En caso de agrupaciones de personas, compromiso de colaboración en que se identifique: <ul style="list-style-type: none"> - a los componentes de la agrupación (nombre y apellidos, DNI y domicilio), - compromisos de ejecución asumidos por cada miembro de la agrupación, - importe de la subvención a aplicar a cada uno de ellos. <p>De la solicitante y de cada una de las personas integrantes de la agrupación, en su caso:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Declaración responsable de encontrarse en la situación en la que concurren las circunstancias previstas en las bases reguladoras y en la convocatoria, no hallarse comprendido en ninguna de la circunstancias que impide obtener la condición de beneficiaria/o de subvenciones y estar al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. 	<p>Eskabideak formatu normalizatuan aurkeztuko dira eta, haiekin batera, agiri hauek ere bai:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lan proiektua. Proiektuan jasoko dira izenburua, ikerketa gai zehatza, helburuak, metodologia, kronograma, eta zer baliabide eta bibliografia erabiliko diren, bai eta emaitza aurreikusiak eta haien interesa ere. Proiektuak, gehienez, Time 12 pt. tipologiako hamar orrialde izanen ditu eta bertan azalduko da hala gaiaren planteamendua nola haren ikuspegi nagusia, bai eta gaia garatzeko atalak ere. Era berean, hasierako bibliografia bat jasotzen ahalko du, lehen azterketa-iturri batzuk adierazteko, bai eta landa-lanaren ikuspegia ere, halakorik badago. • Taldeak badira, elkarlanerako konpromisoa, honakoa adierazita: <ul style="list-style-type: none"> - taldekideak (izen-abizenak, NANA eta helbidea), - taldekide bakoitzak lana gauzatzeko hartu dituen konpromisoak, - taldekide bakoitzari aplikatuko zaion diru-laguntzaren zenbatekoa. <p>Eskatzaileari buruz eta, hala bada, taldekide bakoitzari buruz, honakoa adierazi behar da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erantzukizunpeko adierazpena, deialdian eta oinarri arautzaileetan aurreikusita dauden inguruabarrak betetzen ari direla adierazteko eta, era berean, diru-laguntzen onuradun izatea eragozten duen ezein egoeratan ez dagoela eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela adierazteko.
--	--

<ul style="list-style-type: none"> • Certificaciones que acrediten estar al corriente de sus obligaciones tributarias con Hacienda y la Seguridad Social. No obstante, no tendrán que presentar dichos certificados quienes firmen la autorización prevista en el impreso de declaración responsable para la comprobación de oficio de dichos aspectos. El Ayuntamiento verificará además el cumplimiento de las obligaciones tributarias con el propio Ayuntamiento. <p>Si la solicitud no reúne los requisitos establecidos en esta convocatoria, se requerirá a la persona interesada para que la subsane en el plazo máximo de 10 días, indicándole que si no lo hiciese se le tendrá por desistida de su solicitud.</p> <p>5.- Selección y concesión de la beca.</p> <p>Se constituirá un tribunal específico para la valoración de las solicitudes presentadas a la beca que, además, realizará el seguimiento al proyecto ganador durante el año en el que se estará llevando a cabo. Este tribunal estará compuesto por:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Presidente/a: El Alcalde de Berriozar o persona en quien delegue - Secretario/a: El Técnico de Cultura del Ayuntamiento o persona en quien delegue - 1er vocal: persona designada por la Comisión de Memoria Histórica y Convivencia del Ayuntamiento de Berriozar - 2º vocal: persona designada por la Comisión de Memoria Histórica y Convivencia del Ayuntamiento de Berriozar - 3er vocal: persona designada por la Comisión de Memoria Histórica y Convivencia del Ayuntamiento de Berriozar <p>Las personas miembros del tribunal y, si procede, un máximo de dos personas asesoras expertas en la materia, valorarán la documentación presentada y escucharán la</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela frogatzen duten ziurtagiriak. Hala ere, ez dituzte ziurtagiri horiek aurkeztu beharko erantzukizunpeko adierazpenaren inprimakian aurreikusitako baimena sinatzen dutenek alderdi horiek ofizioz egiaztatzeko. Udalak, gainera, udalarekiko berarekiko zerga-betebeharrak betetzen direla egiaztatuko du. <p>Eskabideak ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako baldintzak, gehienez 10 eguneko epea emanen zaio interesdunari huraxe zuzentzeko eta adieraziko zaio, zuzentzen ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela.</p> <p>5.- Aukeraketa eta beka ematea.</p> <p>Berariazko epaimahai bat eratuko da bekan aurkezten diren eskabideak baloratzeko eta, gainera, proiektu irabazlearen jarraipena egiten du proiektua gauzatzen ari den urtean. Epaimahaiak kide hauek izanen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Epaimahaiburua: Berriozarko alkateak edo hark eskuordetzen duen pertsona. - Idazkaria: Udaleko Kultura teknikaria edo hark eskuordetzen duen pertsona. - 1. kidea: Berriozarko Udaleko Memoria Historikoaren eta Bizikidetzaren Batzordeak izendatzen duen pertsona. - 2. kidea: Berriozarko Udaleko Memoria Historikoaren eta Bizikidetzaren Batzordeak izendatzen duen pertsona. - 3. kidea: Berriozarko Udaleko Memoria Historikoaren eta Bizikidetzaren Batzordeak izendatzen duen pertsona. <p>Epaimahaiko kideek eta, hala badagokio, gaian adituak diren bi aholkularik gehienez, aurkezten den dokumentazioa baloratuko dute, eta eskatzaileek aurkeztutako proiektuen defentsa entzuten dute.</p>
--	--

<p>defensa de los proyectos presentados por parte de las personas solicitantes.</p> <p>El tribunal leerá los proyectos y asignará un horario de defensa a las personas autoras de cada uno, dentro de las tres semanas siguientes a la fecha establecida como límite de presentación de solicitudes.</p> <p>Posteriormente se reunirán las veces que consideren necesarias para la valoración de los trabajos. El jurado presentará por escrito a la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Berriozarko la propuesta de la solicitud que resulte ganadora, después de realizar el proceso de valoración determinando una jerarquía clasificatoria.</p> <p>Deberá levantarse Acta de las reuniones de valoración del Jurado. La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Berriozarko adoptará el acuerdo de concesión de la beca de acuerdo a la propuesta emitida por el Jurado.</p> <p>La beca no podrá compartirse entre dos o más proyectos de los presentados.</p> <p>El fallo de concesión de la beca se comunicará por escrito a la persona becario, a efectos de inicio del plazo de finalización de trabajos, así como al resto de personas aspirantes cuyas solicitudes hubieran sido admitidas.</p> <p>La concesión y disfrute de esta beca no supone ningún tipo de relación laboral con el Ayuntamiento de Berriozarko.</p> <p>6.- Criterios de valoración</p> <p>El Comité de selección valorará especialmente la rigurosidad del procedimiento de estudio expuesto, las fuentes propuestas para utilizar en su elaboración, la amplitud de áreas de estudio determinadas en el proyecto y el dominio del tema demostrado por las personas solicitantes en la defensa oral de su proyecto. Se valorará el uso de fuentes históricas novedosas y la rigurosidad en el método de trabajo.</p>	<p>Epaimahaiak proiektuak irakurriko ditu eta defentsa-ordutegi bat ezarriko die proiektu bakoitzaren egileei, eskabideak aurkezteko muga gisa ezartzen den data eta hurrengo hiru asten barnean.</p> <p>Gero, behar adina aldiz bilduko dira lanak baloratzeko.</p> <p>Epaimahaiak idatziz aurkeztuko dio Berriozarko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari irabazle suertatzen den eskabidearen proposamena, balorazio prozesua egin eta sailkapen-hierarkia bat zehaztu ondoren.</p> <p>Epaimahaiak lanak baloratzeko egiten dituen bileren Akta egin beharko da.</p> <p>Berriozarko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak beka emateko erabakia hartuko du, Epaimahaiak emaniko proposamenarekin bat.</p> <p>Beka ezin izanen da banatu aurkezten diren bi edo proiektu gehiagoren artean.</p> <p>Beka emateko erabakia idatziz jakinaraziko zaio bekadunari, lanak bukatzeko epea abian jartze aldera. Halaber, eskabideak onartzen zaizkien gainerako izangaiei jakinaraziko zaie.</p> <p>Beka hau emateak eta baliatzeak ez dakarte berarekin inolako lan harremanik Berriozarko Udalarekin.</p> <p>6.- Lanak baloratzeko irizpideak</p> <p>Hautaketa Batzordeak bereziki baloratuko ditu azterlana egiteko prozeduraren zorrotasuna, lana egiteko proposatzen diren iturriak, proiektuan zehaztutako azterketa arloen zabalatasuna eta eskatzaileek beren proiektuaren ahozko defentsa egitean gaiak erakusten duten ezagutza. Iturri historiko berritzaileen erabilera baloratuko da, bai eta lan-metodoaren zorrotasuna ere.</p>
---	--

7.- Obligaciones de las personas beneficiarias

Utilizar la aportación económica para el concreto destino para el que ha sido concedida e informar al Ayuntamiento, conforme al calendario concretado al efecto, sobre la labor realizada y los resultados obtenidos, los cuales deberán recibir su conformidad o visto bueno.

Presentar los informes y asistir a las reuniones de seguimiento determinadas en el apartado anterior.

Dar cuenta de las modificaciones habidas en el plan previsto o cambios surgidos en la composición del grupo de investigación. No podrá realizarse ninguna modificación sin el consentimiento del Ayuntamiento de Berriozarko.

El trabajo definitivamente concluido, redactado en euskera y/o castellano, deberá ser entregado a través de la Sede Electrónica del Ayuntamiento o presencialmente -en soporte informático- en la Oficina de Atención Ciudadana en el plazo establecido por la convocatoria.

En caso de incumplimiento de estas obligaciones, las personas beneficiarias de la beca devolverán las cantidades percibidas hasta el momento.

8.- Abono de la beca

El abono de la subvención se realizará de la siguiente forma:

- El 25% del importe total, tras la concesión de la beca.
- El 25% del importe total, transcurrido los primeros tres meses y una vez valorada positivamente la primera información del trabajo realizado y de la entrega de una breve memoria de seguimiento.
- El 25% del importe total transcurridos los siguientes tres meses y una vez valorada positivamente la información del trabajo realizado y de la entrega de una breve memoria de seguimiento.

7.- Onuradunen betebeharrak

Diru ekarpena zertarako eman den, horretarako erabiltzea, eta Udalari jakinaraztea, horretarako zehaztu zen egutegiaren arabera, zer lan egin den eta zer emaitza lortu diren. Emaitzek Udalaren onespena edo oniritzia jaso beharko dute.

Txostenak aurkeztea eta aurreko atalean zehaztutako jarraipen bileretara joatea.

Aurreikusitako planean izaniko aldaketen edo ikerketa taldearen osaeran izaniko aldaketen berri ematea. Ezin izanen da inolako aldaketarik egin Berriozarko Udalaren baimenik gabe.

Behin lana behin betiko amaitu ondoren (euskaraz eta/edo gaztelaniaz idatzita), Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko da edo, bestela, aurrez aurre, euskarri informatikoan, Udalaren Auzo Bulegoan, betiere deialdian ezarritako epean.

Betebeharrak betetzen ez badira, bekaren onuradunek ordura arte jasotako kopuruak oro itzuliko dituzte.

8.- Beka ordaintzea

Diru-laguntza honela ordainduko da:

- Zenbateko osoaren % 25, beka eman ondoren.
- Zenbateko osoaren % 25, lehen hiru hilabeteak igaro ondoren, betiere egindako lanari buruzko lehen informazioa ontzat jo eta gero, eta jarraipen-txosten labur bat aurkeztu ondoren.
- Zenbateko osoaren % 25, hurrengo hiru hilabeteak igaro ondoren, betiere egindako lanari buruzko lehen informazioa ontzat jo eta gero, eta jarraipen-txosten labur bat aurkeztu ondoren.

<p>· El 25% restante, cumplidas las obligaciones de la presente beca y tras la entrega de los resultados, previa conformidad del Ayuntamiento.</p> <p>En caso de estancamiento o no progresión en el avance de la investigación, el tribunal podría suspender la beca.</p> <p>9.- Publicaciones y propiedad intelectual El Ayuntamiento de Berriozar se reserva la facultad de proceder a la publicación de los trabajos, sea parcial o íntegramente, y en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Foral. Dicha publicación se realizará en cualquier tipo de soporte y marco.</p> <p>Corresponderán al Ayuntamiento de Berriozar los derechos de reproducción, distribución, comunicación pública y transformación (traducción en caso de que el trabajo se presente en una sola de las dos lenguas oficiales), manteniendo la persona o personas autoras el derecho moral sobre la obra original que le otorga la Ley de Propiedad Intelectual.</p> <p>Las personas beneficiarias responden de la originalidad y autoría de los proyectos que desarrollen en el marco de esta convocatoria, y en este sentido, garantizan el uso por parte del Ayuntamiento de Berriozar y le eximen expresamente de cualquier responsabilidad por los daños y/o perjuicios que directa o indirectamente, el incumplimiento por su parte de esta garantía pudiera ocasionar.</p> <p>10.- Desistimiento y renuncia. Quienes concurran a esta convocatoria podrán en cualquier momento desistir de su solicitud.</p> <p>Asimismo, las personas beneficiarias podrán, en cualquier momento, renunciar al cobro de la subvención. La renuncia deberá comunicarse de manera escrita y expresa.</p> <p>La renuncia conllevará la pérdida de la condición de persona beneficiaria así como el reintegro de la totalidad de los anticipos o pagos a cuenta que haya percibido.</p>	<p>· Gainerako % 25a, behin beka honen betebeharrak bete ondoren eta emaitzak aurkeztu eta gero, betiere Udalak onespena eman ondoren.</p> <p>Ikerlana eten egiten bada edo aurrera ez badoa, epaimahaiak beka bertan behera utz dezake.</p> <p>9.- Argitalpenak eta jabetza intelektual Berriozarko Udalak beretzat gordetzen du lanak, osorik edo zati batean, Foru Komunitateko bi hizkuntza ofizialetan argitaratzeko ahalmena. Argitalpen hori edozein euskarri eta esparrutan egingen da.</p> <p>Berriozarko Udalari dagozkio erreprodukzioarako, banaketarako, komunikazio publikorako eta eraldaketarako eskubideak (itzulpen eskubidea ere, lana bi hizkuntza ofizialetako bakar batean aurkezten bada), eta egileak -edo egileek- bere gain mantenduko du Jabetza Intelektualari buruzko Legeak jatorrizko lanaren gainean ematen dion eskubide morala.</p> <p>Onuradunek deialdi honen baitan garatzen dituzten proiektuen originaltasunaren eta egiletzaren gaineko erantzukizuna dute eta, alde horretatik, Berriozarko Udalaren erabilera bermatzen dute, eta halaber, Udala berariaz salbuesten dute berme hau ez betetzeak zuzenean edo zeharka sor ditzakeen kalte eta/edo galerengatiko erantzukizunetik.</p> <p>10.- Atzera egitea eta uko egitea Deialdi honetan parte hartzen dutenek edozein unetan egin ahal izanen dute atzera beren eskaeran.</p> <p>Era berean, onuradunek edozein unetan uko egin ahal izanen diote diru-laguntza kobratzeari. Uko egitea idatziz eta berariaz jakinarazi beharko da.</p> <p>Uko egiteak onuradun izaera galtzea ekarriko du eta, gainera, jaso dituen aurrerakin edo konturako ordainketa guztiak itzuli beharko ditu.</p>
--	--

<p>11. Normativa reguladora. La presente convocatoria se regirá por las bases recogidas en este documento y -en lo no previsto en él-, por lo establecido en la siguiente normativa: Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, Ley Foral de la Administración Local de Navarra, y Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra.</p> <p>Las cuestiones litigiosas que pudieran surgir se solventarán a través de la vía administrativa, conforme a las disposiciones legales vigentes.</p> <p>12. Protección de datos El Responsable del tratamiento de los datos de las personas participantes es el Ayuntamiento de Berriozar. Los datos personales se utilizarán para la gestión de la convocatoria y el control y desarrollo posterior de la beca. Se realizarán las comunicaciones de datos que vengan impuestas por ley.</p> <p>Los datos se mantendrán mientras permanezca la finalidad del tratamiento y las posibles responsabilidades derivadas del mismo. Se tendrá en cuenta la Ley Foral 12/2007, de 4 de abril, de Archivos y Documentos.</p> <p>Las personas titulares pueden ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, así como otros derechos, como se explica en la información adicional que se encuentra disponible en la política de privacidad de la web www.berriozar.es</p> <p>Pueden interponer una reclamación ante la Agencia Española de Protección de Datos (www.aepd.es) o hacerlo previamente ante el delegado de protección de datos en dpd@berriozar.es.</p> <p>En Berriozar, a 23 de febrero de 2022.</p>	<p>11. Araudi arautzailea. Deialdi hau agiri honetan jasotako oinarriekin bat arautuko da eta, bertan aurreikusi ez den orotan, honako araudi honetan ezarritakoarekin bat: diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea.</p> <p>Sor daitezkeen auziak administrazio bidean ebartziko dira, indarrean diren legez-xedapenekin bat.</p> <p>12. Datuen babesa Parte-hartzaileen datuen tratamenduaren arduraduna Berriozarko Udala da. Datu pertsonalak deialdia kudeatzeko eta bekaren kontrola eta garapena egiteko erabiliko dira. Legeak ezarritako datu-komunikazioak egingo dira.</p> <p>Tratamenduaren xedeak eta horrek ekar ditzakeen erantzukizunek dirauten bitartean mantenduko dira datuak. Kontuan hartuko da Artxiboari eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legea.</p> <p>Titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak erabil ditzakete, baita beste eskubide batzuk ere, www.berriozar.es webguneko pribatutasun-politikan eskuragarri dagoen informazio gehigarrian azaltzen den bezala.</p> <p>Erreklamazioa jar diezaiokete Datuak Babesteko Espainiako Agentziari (www.aepd.es) edo, bestela, datuak babesteko ordezkariari, dpd@berriozar.es helbidean.</p> <p>Berriozarren, 2022ko otsailaren 23an.</p>
--	---